

## ANTZARAK ITURRIOTZEN

Aurtengo udazken eta negu epelean sarritan ibili gara kanpoan, gu, antzarok, harat eta honat, belarra jaten.

Ondoko haur-eskolako bizilagun txikien bixita sarritan izan dugu eta hauen berri eman nahi dizuegu.

Goizean, tipi-tapa batzuk, karro barruan besteak, guganaino iristen dira. Urrutitik ikusten ditugu, orduan hegalak zabaldu, bular aldea kanpora atera eta harro aski jaisten gara karraka eginez, beraiengana.

Hasiera batean Laura eta Iker beldurtzen ziren, denborarekin ohitzen joan dira, hainbeste kostatako zeremonia ohikotzat hartuz.

Harrokeriaz jokutzen dugun arren ez diegu inoiz mokokada txikiena ere egin, harri koxkorak botatzen hasi zirenean tentatuak egon baginen ere. Orain irakasleek ogia ekartzen dute, arto aleren bat ere tarteka. Janari apur bat jasotzen dugu behintzat!!! Ederki aski dakite ordea inoxente aurpegia jarri eta guretzat behar lukeen ogi zatia beraiek jaten.

Begiratzeko gogo handiz etorri badira, putzulotxora sartzen gara: uretan burua sartu, hegalak zabaldu...

Gurekin denboratxoa egin ondoren, indioilarrak, ahateak, uxoak, oilarrak ikustera joaten dira... eta buelta berriro ere gelara, bazterretik, kotxeren bat hurbiltzen bada ere.

Hurrengo arte!! Hurrengoan antolatuko dugu berriz ohiko zeremonia!  
Laster arte!!!